

Convenio entre el Ayuntamiento de Getxo y el Instituto Vasco de Administración Pública

Reunidos

De una parte, el Ilmo. Sr. D. Jon Koldobika Urrutia Mingo como Director del Instituto Vasco de Administración Pública y en representación del mismo, y

De la otra, el Ilmo. Sr. D. Iñaki Zarraoa Zabala como Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Getxo y en representación del mismo,

Manifiestan

I.- Que la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, establece en su artículo 69 que las Administraciones Públicas Vascas dispensarán a sus funcionarios la protección necesaria en el ejercicio de sus funciones y garantizarán los derechos inherentes a los mismos, y recoge entre éstos el derecho que los funcionarios tienen a la formación profesional permanente.

II.- Que la Ley 16/1983, sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública, recoge en sus artículos 1 y 2 que el citado Instituto se configura como Organismo Autónomo de carácter administrativo, y que está dotado de personalidad jurídica y medios necesarios para el cumplimiento de sus fines.

III.- Que el Decreto 1/1996, de 9 de enero, por el que se establece la estructura orgánica del Instituto Vasco de Administración Pública, establece en su artículo 2 que entre los fines del mencionado Instituto está "la formación y perfeccionamiento de los empleados públicos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la cooperación con las restantes administraciones públicas vascas en orden a la formación y el perfeccionamiento de sus respectivos empleados públicos".

IV.- Que el mismo Decreto 1/1996, en su artículo 10, establece que, entre otras funciones, corresponde al Servicio de Formación del Instituto Vasco de Administración Pública "colaborar con los Órganos Forales de los Territorios Históricos, Municipios y demás Entidades de la Administración Local de Euskadi en los procesos de formación y perfeccionamiento del personal a su servicio, para lo cual se establecerán convenios y acuerdos de cooperación".

V.- Que en vista de todo ello, el Ayuntamiento de Getxo solicita la colaboración del Instituto Vasco de Administración Pública, en orden al logro de los objetivos de formación y perfeccionamiento del personal a su servicio que se ha marcado en aras de lograr una mayor calidad en el servicio a los ciudadanos.

Por todo ello, el Instituto Vasco de Administración Pública y el Ayuntamiento de Getxo acuerdan colaborar en las labores de formación y perfeccionamiento de los empleados públicos de la mencionada Institución estableciendo el presente CONVENIO, que se desarrollará de acuerdo con los siguientes principios y líneas de actuación.

Objeto del Convenio

Primera.- El convenio tiene por objeto establecer y regular el marco de colaboración entre el Instituto Vasco de Administración Pública y el Ayuntamiento de Getxo, en orden a elaborar un Plan de Formación del personal a su servicio.

Segunda.- La colaboración ofrecida por el Instituto Vasco de Administración Pública para el correcto desarrollo del Plan de Formación del personal al servicio del Ayuntamiento de Getxo abarcará los campos de actuación que a continuación se citan:

- La evaluación inicial de las necesidades de formación de los trabajadores al servicio del mismo.
- La colaboración y asesoramiento en el diseño y organización del Plan de Formación del personal al servicio del Ayuntamiento, de acuerdo con los resultados de la evaluación inicial de necesidades a tal efecto realizada.
- La gestión de los cursos, seminarios y demás actividades que conformen el Plan de Formación.
- La evaluación final del desarrollo del Plan de Formación, así como la expedición en su caso de certificados de asistencia a los asistentes a los diferentes cursos, seminarios y demás actividades que conformen el Plan de Formación.

Evaluación inicial de las necesidades de formación

Tercera.- El IVAP procederá, en colaboración con el Ayuntamiento, a realizar la evaluación de las necesidades de formación de los empleados de éste, de acuerdo con los objetivos estratégicos que el propio Ayuntamiento se haya marcado. Para el buen desarrollo de este análisis de necesidades, el Ayuntamiento de Getxo se compromete a facilitar la información y la ayuda que el IVAP considere necesarias.

Una vez realizado el mencionado análisis de necesidades, el Instituto Vasco de Administración Pública remitirá al Ayuntamiento un informe detallado en el que se especifiquen los resultados obtenidos y la consiguiente propuesta de formación que el Instituto hace.

Diseño y organización del Plan de Formación

Cuarta.- El IVAP procederá, en colaboración con el Ayuntamiento de Getxo, a diseñar el Plan de Formación del citado Ayuntamiento; para ello, y de acuerdo con las necesidades concretas de esa Institución, el IVAP propondrá las actividades formativas a su juicio adecuadas, en forma de cursos, seminarios, jornadas, etc.

El Plan de Formación, además de detallar sus objetivos generales y su presupuesto, detallará para todas y cada una de las actividades formativas que lo conforman los siguientes aspectos:

- Objetivos de la acción formativa.
- Destinatarios.
- Programa.
- Duración.
- Fechas posibles.
- Profesorado posible.
- Coste de la matrícula por alumno.

Quinta.- Una vez finalizado el diseño del Plan de Formación, el IVAP lo remitirá al Ayuntamiento de Getxo para su pertinente aprobación. Una vez aprobado por esa Institución se procederá a su inmediata puesta en marcha.

Gestión de los cursos, seminarios y demás actividades que conformen el Plan de Formación

Sexta.- El IVAP se compromete a realizar todas las actividades necesarias para el buen desarrollo del Plan de Formación. De esta manera, y en cada una de las actividades formativas, realizará las siguientes acciones:

- Contratar al profesorado.
- Preparar el material didáctico que el profesor considere oportuno y facilitarlo a los alumnos.
- Facilitar los soportes técnicos necesarios.
- Controlar la asistencia de los alumnos, control que se remitirá al Ayuntamiento una vez finalizada la actividad formativa.

Séptima.- El coste de la matrícula por alumno en cada una de las actividades formativas lo determinará la Orden del Consejero de Hacienda y Administración Pública, por la que se fijan los precios públicos de las actividades que prestan los diferentes servicios en que se estructura el IVAP, que esté en vigor en cada momento.

El IVAP y el Ayuntamiento de Getxo, de común acuerdo, fijan en 6 el número mínimo de asistentes a un curso; en el caso de que el Ayuntamiento de Getxo considerara necesario realizar algún curso con menos asistentes de los que el número mínimo señala, esa Institución deberá abonar, en concepto de matrícula, la cantidad que correspondería al número mínimo prefijado.

Octava.- El pago de las cantidades correspondientes a las matrículas de los cursos se realizará a trimestre vencido.

Evaluación final del Plan de Formación y certificación

Novena.- El IVAP realizará un informe de evaluación de cada una de las actividades formativas, informe del que remitirá una copia al Ayuntamiento de Getxo. Del mismo modo, y una vez finalizadas todas las actividades formativas que conforman el Plan de Formación, el IVAP realizará un informe global de evaluación del Plan, del que igualmente remitirá una copia al Ayuntamiento.

Décima.- Al término de cada actividad formativa, el IVAP expedirá un certificado oficial de asistencia a todos aquellos que hayan cumplido como mínimo con el 80% del horario de la citada actividad.

Del mismo modo, el IVAP podrá expedir un certificado oficial de aprovechamiento en el caso de aquellas actividades formativas que prevean la realización de una prueba que permita evaluar el aprovechamiento de la actividad.

Vigencia del Convenio

Undécima.- El presente convenio entrará en vigor al día siguiente de su firma por ambas partes y sus disposiciones regirán hasta el 31 de diciembre de 2003, prorrogándose automáticamente por anualidades cuando ninguna de las dos partes manifieste su voluntad de denunciarlo. En cualquier caso, dejará de estar en vigor dos meses después de la fecha en que se comunique tal determinación.

Y en prueba de conformidad ambas partes firman el presente convenio, en Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2003.

Por el Instituto Vasco de
Administración Pública

Por el Ayuntamiento de
Getxo

Jon Koldobika Urrutia Mingo
Director

Iñaki Zarraoa Zabala
Alcalde

Hitzarmena, Getxoko Udalaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artekoa

Bertaratuak

Batetik, Jon Koldobika Urrutia Mingo jauna, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria, erakunde horren ordezkari den aldetik.

Beste batetik, Iñaki Zarraoa Zabala jauna Getxoko Udaleko alkatea, Udalaren ordezkaria den aldetik.

Adierazitakoak

I.- Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legearen 69. atalean jasotakoarekin bat, Euskal Administrazio Publikoek beren funtzionarioei lan egiteko beharrezkoa duten babesa eskainiko diete eta dagozkien eskubideak bermatuko dituzte. Eskubide horien artean etengabeko lanbide-prestakuntza jasotzeko eskubidea dago.

II.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Lege-Jaurpideari buruzko 16/1983 Legearen 1. eta 2. ataletan jasotakoaren arabera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea autonomiadun erakundea da, administrazio mailakoa, eta berezko izaera juridikoa eta bere helburuei begira jarduteko gaitasun osoa du.

III.- Urtarrilaren 9ko 1/1996 Dekretuaren, hau da, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura organikoa erabakitzen duen dekretuaren 2. atalak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen helburuak zeintzuk diren zehazten du. Helburu horien artean "Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorreko langile publikoak prestatu eta hobetzea eta gainerako euskal administrazio publikoei beren langile publikoak prestatu eta hobetzen laguntzea" dago.

IV.- 1/1996 Dekretuaren 10. atalak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Prestakuntza Zerbitzuaren egitekoak zeintzuk diren zehazten du. Eginkizun horietako bat "Euskadiko lurralde historikoetako foru-erakundeei, udalei eta beste toki-administrazioei langileak prestatu eta hobetzeko prozesuetan laguntzea eta horretarako lankidetzaitunak eta lankidetzahitzarmenak egitea" da.

V.- Hori guztia kontuan hartuta, Getxoko Udalak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen laguntza eskatzen du, Udalaren langile publikoak prestatu eta hobetzeko helburua lortu ahal izateko. Izan ere, helburu hori lortuz gero, Udalak herritarrei ematen dizkien zerbitzuen kalitatea hobetuko litzeteki.

Horregatik guztiagatik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Getxoko Udalak HITZARMEN hau izenpetzea erabaki dute, udal-langile publikoak prestatu eta hobetzeko elkarlanean aritzeko, ondoren adierazitako printzipio eta jardunbideen arabera

Hitzarmenaren helburua

Lehenengoa.- Hitzarmen honen helburua Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Getxoko Udalaren arteko lankidetzarako esparrua zehaztea eta arautzea da, udal-langileentzako Prestakuntza Plana egiteko.

Bigarrena.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak laguntza emango dio Getxoko Udalari bere langileentzako Prestakuntza Plana behar bezala garatzeko. Laguntza hori honako jarduketetan gauzatuko da:

- Udal-langileen prestakuntzarako hasierako beharrak zeintzuk diren aztertzea.
- Hasierako azterketa horren emaitzen arabera, udal-langileentzako Prestakuntza Plana egiteko laguntza eta aholkularitza eskaintzea.
- Prestakuntza Planaren barruan egingo diren ikastaro, mintegi eta gainerakoak kudeatzea.
- Prestakuntza Planaren garapenari buruzko azken ebaluaketa egitea. Horrez gain, hala badagokio, Prestakuntza Planaren barruan egindako ikastaro, mintegi eta gainerako jarduketei dagozkien bertaratze-agiriak egitea parte hartu duten langileentzat.

Prestakuntzarako hasierako beharrak aztertzea

Hirugarrena.- HAEEK udaleko langileen prestakuntzarako beharrak aztertuko ditu, udalaren laguntzarekin eta Udalak bete nahi dituen strategi helburuen arabera. HAEEK prestakuntzarako beharrak zeintzuk diren zehazki jakin ahal izateko, Getxoko Udalak bere gain hartzen du HAEEK beharrezkoa deritzon edozein argibide eta laguntza ematea.

Prestakuntzarako beharrak aztertu ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak txosten bat igorriko dio Udalari. Txostenak azterketaren emaitzak eta udal-langileak prestatzeko proposamenak zehaztuko ditu.

Prestakuntza Plana diseinatu eta antolatzea

Laugarrena.- HAEEK, Getxoko Udaleko laguntzarekin, udal horretako Prestakuntza Plana diseinatuko du. Horretarako, HAEEK egokien derizkion prestakuntza-jarduketak proposatuko dizkio udalari, baina beti ere, udal horren behar zehatzen arabera. Prestakuntza-jarduketa horiek ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak eta abar izan daitezke.

Prestakuntza Planean, helburu orokorrez eta aurrekontuaz gain, beste datu hauek ere zehaztu beharko dira, proposatzen diren prestakuntza-jarduketa guztietarako:

- Prestakuntza-jarduketaren helburuak.
- Norentzat den.
- Egitaraua.
- Iraupena.
- Egun aproposenak zeintzuk izango liratekeen.
- Aukera daitezkeen irakasleak.
- Ikasleek ordaindu beharreko matrikula.

Bosgarrena.- Prestakuntza Planaren diseinua amaitzen duenean, HAEEK Getxoko Udalari igorriko dio, Udalak onar dezan. Udalak onartzen duenean plana berehala martxan jarriko da.

Prestakuntza Plana osatzen duten ikastaro, mintegi eta gainerako jarduketak kudeatzea.

Seigarrena.- HAEEK bere gain hartzen du Prestakuntza Plana behar bezala garatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak burutzea. Erantzukizun horren ildotik, hona hemen prestakuntza-jarduketa bakoitzeko HAEEK dituen egitekoak:

- Irakasleak kontratatu.
- Irakasleak egoki deritzon ikasmateriala gertatu eta ikasleei eman.
- Beharrezko euskarri teknikoak eskaini.
- Ikasleak jarduketetan parte hartzen dutela egiaztatu eta prestakuntza-jarduketa amaitzen denean bertaratzeari buruzko argibideak igorri Udalari.

Zazpigarrena.- Ikasle bakoitzak prestakuntza-jarduketa bakoitzeko ordaindu beharko duen matrikularen zenbatekoa indarrean dagoen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren Erabakiak zehaztuko du. Izan ere, erabaki horrek HAEEKo zerbitzuek eskaintzen dituzten jarduketaren jendaurreko prezioa finkatzen du.

HAEE eta Ortuellako Udala bat etorri dira ikastaroetako gutxieneko ikasle-kopurua 6 ikasletakoa izango dela erabakitzeko. Hala ere, Getxoko Udalaren iritziz, gutxiengo kopuruan erabakitakoak baino ikasle gutxiago behar badira ikastaroren batean, gutxieneko kopurua osatu arteko matrikulak udal horrek ordaindu beharko ditu.

Zortzigarrena.- Ikastaroen matrikulei dagozkien ordainketak hiru hilabete bukatzerakoan egingo dira.

Prestakuntza Planaren azken ebaluaketa eta bertaratze-agiriak egitea

Bederatzigarrena.- HAEK prestakuntza-jarduketa bakoitzari dagokion ebaluaketa-txostena egingo du eta txostenaren kopia Getxoko Udalari igorriko dio. Horrez gain, Prestakuntza Plana osatzen duten prestakuntza-jarduketa guztiak amaituta daudenean, HAEK Planaren ebaluaketa-txosten orokorra egingo du eta Udalari ebaluaketa-txosten orokor horren kopia igorriko dio.

Hamargarrena.- Prestakuntza-jarduketa bakoitzaren amaieran HAEK jarduketa egin izanaren egiaztagiria emango die partehartzaileei, jarduketak irauten duen denboraren %80 osatu badute gutxienez.

Era berean, prestakuntza-jarduketa batek aprobetxamendua neurtzeko ebaluaketa-froga egitea aurriztatu duenean, jarduketa hori ikaslearentzako onuragarria izan dela ziurtatzen duen agiri ofiziala eman dezake HAEK.

Hitzarmenaren indarraldia

Hamaikagarrena.- Hitzarmen hau bi partehartzaileek izenpetu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean eta bertan jasotako hitzarkinak 2003ko abenduaren 31 arte egongo dira indarrean. Hala ere, indarraldia urtero-urtero automatikoki luzatuko da partehartzaileek hitzarmena amaitzeko borondatea agertzen ez duten bitartean. Edozein modutan, partehartzaileek hitzarmena amaitzeko borondatea agertzen duten egunetik bi hilabetera bukatuko da indarraldia.

Esandakoarekin bat datozela frogatzeko, bi aldeek hitzarmena izenpetzen dute, Vitoria-Gasteizen, 2003ko otsailaren 28an.

Herri Arduralaritzaren Euskal
Erakundearen izenean

Getxoko Udalaren
izenean

Jon Koldobika Urrutia Mingo
Zuzendaria

Iñaki Zarracoa Zabala
Alkatea